


DNA 2017


FESTIVAL DE DANZA CONTEMPORÁNEA DE NAVARRA
NAFARROAKO DANTZA GARAIKIDEAREN JAIALDIA



Gregory Batardón

20 MAYO 3 JUNIO
MAIATZAK 20 EKAINAK 3

Organiza / Antolatzen du

 Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

 cultura
navarra.es

FUNDACION
BALUARTE
FUNDAZIOA



EUSKARAZKO ALEA

Este programa también está disponible en castellano



DNA 2017

#etorkizuna #ekopolitika #erkidegoa

programazio egutegia

Maiatzaren 20a, larunbata

- 12:00 **Uharte, Uharte Zentroa**
Aperitifak coLABoratorio **58 or.**
- 17:00 **Iruña, Katakarak**
Anarchie, Societat Doctor Alonso (Katalunia) **15 or.**
- 20:00 **Iruña, Baluarte**
Rice, Cloud Gate Dance Theatre, (Taiwan) **37 or.**
- 20:00 **Altsasu, Iortia Kultura Gunea**
Oskara Plazara, Kukai Dantza (Gipuzkoa) **17 or.**

Maiatzaren 21a, igandea

- 18:00 **Iruña, Baluarte**
Homem Torto, Eduardo Fukushima (Brasil) **19 or.**
- 19:00 **Agoitz, Agoizko Kultura Etxea**
Sobre Ruedas, Kon mocion (Nafarroa) **21 or.**
- 20:00 **Iruña, Baluarte**
Força Forte, Gilles Jobin (Suitza) **23 or.**

Maiatzaren 22a, astelehena

- 19:00 **Iruña, Katakarak**
Anarchie, Societat Doctor Alonso (Katalunia) **15 or.**

Maiatzaren 23a, asteartea

- 19:00 **Iruña, Katakarak**
Anarchie, Societat Doctor Alonso (Katalunia) **15 or.**

Maiatzaren 24a, asteazkena

- 19:00 **Iruña, Katakarak**
La Danza del futuro, Jaime Conde Salazarren hitzaldia **58 or.**

Maiatzaren 25a, osteguna

- 19:00 **Iruña, Karlos III.a, Gaiarre Antzokiaren aurrean**
Arbolak, Clarice Lima (Brasil) **25 or.**
- 20:00 **Iruña, Gaiarre Antzokia**
more more more... future, Faustin Linyekula (Kongoko Errepublika Demokratikoa) **27 or.**

Maiatzaren 26a, ostirala

- 21:00 **Noain, Noaingo Kultura Etxea**
Extraños Mares Arden, Txalo Toloza eta Laida Azkona (Katalunia, Nafarroa) **29 or.**

Maiatzaren 27a, larunbata

- 12:00 **Iruña, Gotorlekua**
Arbolak, Clarice Lima (Brasil) **25 or.**
- 14:00 **Iruña, San José Plaza. Alde Zaharraren Eguna**
Arbolak, Clarice Lima (Brasil) **25 or.**
- 19:00 **Noain, Noaingo Kultura Etxea**
Sinestesia, Iron Skulls (Katalunia) **39 or.**

Maiatzaren 28a, igandea

- 12:00 **Atarrabia, San Andres errota**
Arbolak, Clarice Lima (Brasil) **25 or.**
- 13:30 **Atarrabia, Antso VI Jakituna plaza**
Arbolak, Clarice Lima (Brasil) **25 or.**
- 19:00 **Barañain, Barañaingo Auditorioa**
Oskara Plazara, Kukai Dantza (Gipuzkoa) **17 or.**

Maiatzaren 30a, asteartea

- 12:00 **Barañain, Barañaingo azoka txikia**
22h 21m. Artistas Inflamables (Madril, Errioxa, Portugal) **31 or.**
- 17:00 **Iruña, Gaiarre Antzokia**
Historias de la danza moderna: de Isadora Duncan a Martha Graham
Hitzaldi-proiektzioa, Leonel Brum-ekin **59 or.**
- 20:00 **Iruña, Gaiarre Antzokia**
Martha Graham Dance Company (AEB) **41 or.**

Maiatzaren 31, asteazkena

- 20:00 **Barañain, Auditorio Barañain**
Coin-çi-dances. Artistas Inflamables (Madril, Errioxa, Portugal) **45 or.**

Ekainaren 1a, osteguna

- 20:00 **Iruña, Golem Baiona**
Zinemadantza 3Dn. Womb, Gilles Jobin (Suitza). **Ultrainocencia**, Los Corderos.SC (Katalunia) eta **Art of Movement**, Billy Cowie (Erresuma Batua) **32-33 orr.**

Ekainaren 2a, ostirala

- 17:00 **Iruña. "Printzearen Gotorlekua" aterpetxea**
Bideo-dantzaren Iberoamerikar Jaialdien aurkezpena **55 or.**
- 20:00 **Agoitz, Agoizko Kultura Etxea**
Transoceánica Aurrestreinaldia, Dinamo Danza eta Uxue Monterorekin (Nafarroa) **47 or.**
- 20:30 **Barañain, Barañaingo Auditorioa**
Sobre Ruedas, Becky Siegel (Nafarroa) **21 or.**

Ekainaren 3a, larunbata

- 12:00 **Uharte, Uharte Zentroa**
coLABoratorio. Ateak zabalik **58 or.**
- 20:00 **Lesaka, Harriondoa Kultur Etxea**
Titulo em suspensão
Eduardo Fukushima (Brasil) **49 or.**
- 20:30 **Tutera, Gaztambide Antzokia**
Sobre Ruedas, Becky Siegel (Nafarroa) **21 or.**

Anarchy *Societat Doctor Alonso* (Katalunia) **Rice Cloud**
Gate Dance Theatre (Taiwan) **Oskara Plazara** *Kukai Dantza*
(Gipuzkoa) **Homem Torto** *Eduardo Fukushima* (Brasil) **Sobre**
Ruedas *Cía. Kon moción* (Nafarroa) **Força Forte** *Gilles Jobin*
(Suitza) **Arbolak** *Clarice Lima* (Brasil) **More more more...**
Future *Faustin Linyekula* (Kongoko Errepublika Demokratikoa)
Extraños Mares Arden *Laida Azkona y Txalo Toloza* (Katalunia/
Nafarroa) **Sinestesia** *Iron Skulls* (Katalunia) **Deep Song, Dark**
Meadow (Sweet), Woodland, Lamentation Variations,
Diversion of Angels *Martha Graham Dance Company* (AEB)
22h21m eta **Coin-çi-danses** *Artistas Inflamables* (Madril/
Errioxa/Portugal) **Transoceánica** *Dinamo Danza eta Uxue*
Montero (Nafarroa) **Titulo em Suspensão** *Eduardo Fukushima*
(Brasil)

coLABoratorio. Egonaldiak. Ekintza performatikoak
espazio publikoetan. Lantegiak. Solasaldiak. Topaketak

Iruña, Barañain, Uharte, Noain,
Atarrabia, Altsasu, Agoitz, Lesaka eta Tuterá

2017KO MAIATZAREN 20TIK EKAINAREN 3RA



Márcio Távora

Nafarroak dantza garaikidea berreskuratu du

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak hautu irmoa egin du Nafarroa dantzarendako eta mugimenduaren arteendako erreferentziatzko toki bihur dadin. Joan den udazkenean egin zen lehen edizioaren ondotik, Nafarroako Dantza Garaikideko Jaialdiak behin betiko tokia aurkitu du Dantzaren Nazioarteko Egunaren hurbileko datetan, hots, apirilaren 29aren bueltan. 2017an, DNAk zuzendaritza artistiko berria du. Isabel Ferreira da buru eta beste programa bat aurkeztu du zeinean beste latitude batzuetatik datozen proposamenak jasotzen diren: Taiwan, Brasil, AEB, Suitza, Kongo, Suitza edo Portugal. Urrutirako begirada, ingurune hurbilekoa ere aintzat hartzen duena, Nafarroa, Euskadi, Errioxa edo Kataluniako artisten ikuskizunak ere baitaude.

DNA 2017k dantzaren gaineko begirada eta diskurtso desberdinak sortzera bideraturiko programazio baten aldeko hautua egin du, dantza, zinema, bideo-dantza edo videomapping bezalako adierazpen artistikoak barne hartzen dituzten hamabost lan eskainiz. Dantzaren unibertsoari dimentsio berri bat emateko modu bat, zientziaren eremuarekin eta rocka, punka eta hip hopa bezalako musika estiloekin loturak bilatuz. DNAk munduko hainbat paisaietatik etorkizunari itxaropenez beterik begiratzen dieten istorioak aurkezten ditu. Istorio hauek Iruñean, Barañainen, Uharten, Noainen, Atarrabian, Altsasun, Agoitzen, Lesakan eta Tuteran taularatuko dira, maiatzaren 20a eta ekainaren 3a bitartean. Jaialdiak, horrela, dantzari loturiko ikusle askotarikoak elkartzeko gune bihurtu nahi du.

Programazio honen lehentasunen artean daude, halaber, aniztasunari erantzutea, arte eszenikoak garatzea eta bistaratzea, dantza eta dantzaren sormen prozesuak sustatzea, berrikuntza, sormen garaikidea eta azken joerei eta abangoardiako hizkerari irekitzea. Funtsean programa honek dantza garatzeko tresna bat izan nahi du, dantza Nafarroako sektore kultural nabarmena baita.

irizpide horiei jarraikiz, DNAk dantzak gure erkidegoan izan dezakeen eginkizunaren gaineko zeharkako hausnarketa baterako abiapuntua izan nahi du. Dantza, adierazpen artistiko gisa, eta beste hizkuntzekiko fusio elementu gisa. Dantza, xede gisa, oholtza gainean gozatzeko, baina baita baliabide gisa ere, beste esparru batzuetan barneratua, hala nola hezkuntza, ikerketa edo ekonomia, bestelako erkidego eta gizarte ereduak eraikitzeko.

Fernando Pérez Gómez
Kulturako zuzendari nagusia

etorkizuna +

Jaialdia elkartzeko aukera paregabea da, arlo guztietako artistak, kudeatzaileak, artearekin lan egiten duten instituzioak, eta zaleak beraiek ere bai, noski. Halakoetan, guztion energia batzen da, ezusteko lankidetzak sortuz eta milaka ate irekiz. Nafarroan, sormen-lan garaikiderako bide berriak eraikitzen ari diren honetan, gogo eta ilusio handiz hartzen dut DNA jaialdiaren zuzendaritza artistikoaren erronka.

Eta ilusioa da, hain zuzen ere, etorkizuna imajinatzeko ilusio espiritu hori, DNAREN edizio berri hau inspiratzen duena. Garai nahasi hauetan, itxaropena piztuko diguten istorioak ekarri nahi ditugu Nafarroara aurtengo jaialdian, hala nola, Cloud Gate Dance Theatre-ren, *Rice* lana, nekazaritza ekologikoaren defentsan edota Txalo Toloza eta Laida Azkonaren *Extraños Mares Arden*, Atakamako biztanleak meategietako industriaren kontrako erresistentzian erakutsiko dizkiguna. Bestetik, Societat Doctor Alonsoren *Anarchy* lanaren “no future” eta Kongoko Faustin Linyekularen “*more more more future*”, biek mezu bera helarazten digutela: etorkizuna gaurtik bertatik eraikitzen duguna da. Dantzaren etorkizunaren inguruan ere lan egingo dugu, jarduera-programako solasaldietan. Zein da etorkizuneko dantza? Norantz doa? Zein da ekonomia kulturalaren munduaren barnean duen espazioa?

DNA 2017n, memoria, gorputza, mugimendua, musika, eszenografia, bideoa, filosofia edo fisika kuantikoa “dantza todoterreno” deitu litekeen programazio batean eratu ditugu, lkerketa artistikoa, testuingurua, gaia eta estilo aniztasuna konbinatuz. Txileko basamortuak, Taiwango arroz ekologikoko zelaiak, Nafarroako urtegietan lehortek eragindako edertasun samingarria, hirigunean sustraitutako zuhaitz-gorputz landaketak, paraje post-apokaliptikoak mundu distopiko batean, hondamenean dagoen Kinshasa hiriko ostatuetako gau bukaezinak, eta fisika kuantikoko partikulen dantza. Denak dira geltoki posibleak, dantza garaikidearen neurrigabeko paisaia barrena. Aniztasuna dela eta, gaitasunen eta gorputzen dibertsitateak ere ospatu nahi ditugu aurtengo edizioan, Brasilgo Eduardo Fukushimaren *Homem Torto* edo *Sobre Ruedas* Kon mocion eta Lua taldearekin batera.

AEBtik etorriko zaigu Martha Graham Dance Company, dantza garaikidearen bidegile handiaren taldea, bere 90. urteurrenaren ospakizun gisa, euren lanik entzutetsuenetako batzuk eskainiko dizkiguna. Beraz, Hego eta Iparramerika, Europa, Asia eta Afrikako artistak

izango dira aurtengo edizioan, DNA-ren proposamenetako bat baita beste kontinenteetako arte garaikideekin zubiak eraikitzea. Halako programazio anitza ez zatekeen posiblea izango Gaiarre Antzokiaren eta Baluarte Fundazioaren laguntzarik gabe.

Ikuskizunen programazioaz gain, jaialdiak irauten duen hamabost egunetan zehar, lankidetzak, topaketa eta prestakuntza jardueren programa antolatu dugu. Besteak beste, coLABoratorio DNA, bost astetako laborategia Uharte Zentroan tokiko sormen lana sustatzeko munduko hainbat tokitako artistekin lankidetzan; hiru egonaldi artistiko Lesaka, Agoitz eta Barañainen, egonaldiaren buruan aurrestreinaldia eskeiniko dutenak; Bi topaketa ere izango ditugu, alde batetik, Bideo-dantza Jaialdien Sare Iberamerikarraren Topaketa, eta bestetik, DNA - PEA (Hedapen Artistikorako Topaketa), Arte Bizien eta ekonomia kulturalaren arteko harremanen gaineko hausnarketan oinarritua. Horrela, jaialdi honek, ikuskizunen kalitatea bilatzeaz gain, aktore askotarikoen arteko topaketa eta elkarriketa bideratu nahi ditu, komunitatean pentsatzeko eta bizitzeko bestelako moduen gainean hausnartzeko asmoz.

—
Isabel Ferreira

DNAko zuzendari artistikoa





SOCIETAT DOCTOR ALONSO

ANARCHY

Askatasuna dago ororen oinarrian. Alabaina, zer da gutako bakoitzarendako askatasuna? Anarchy, kaosaren eta ordenaren arteko esperimendu bat da, esperientzia konplexu bat, eta ezin da esan gaitzik egiten ez duenik. Laburbilduz: “isiltasuna nahi baduzu, landu ezazu” edo “egin ezazu nahi duzuna”. Ahduntze hori ez da aise ematen. Lan honetan, oinarri-oinarria esperimendazioa da, baina ez ekintza estetiko gisa, aitzitik, muina da, obraren, antzerkira joatearen muina. Ikus-entzuleek dute hitza, dute ahotsa, dute isiltasuna.

Societat Doctor Alonsok, Tomás Aragay (antzerki zuzendaria eta dramaturgoa) eta Sofía Asencio (dantzaria eta koreografoa) zuzendaritzapean, hizkera bat sortu du. Hizkera horrek desplazamenduaren maniobra darabil, zerbait bere tokitik, bere-berea duen esparrutik kanpo kokatzea, errealitatea ulertzeko dugun moduaren estatus quoa zalantzan jarriko duten diskurtso poetikoko guneak sortzeko tresna eraginkor gisa.

Maiatzaren 20an
larunbatarekin, 17:00etan
Maiatzaren 22an,
astelehenarekin, 19:00etan
Maiatzaren 23an,
asteartearrekin, 19:00etan

KATAKRAK-EN

50 min

SARRERAREN PREZIOA

Katakakerako kontsumizio bonoa, 10 eur.

info +: www.doctoralonso.org

ZUZENDARIA SOFÍA ASENCIO | **DRAMATURGIA** TOMÁS ARAGAY | **ZUZENDARI KOREOGRAFIKOA** SOFÍA ASENCIO | **SORKUNTZA ETA INTERPRETAZIOA** SEMOLINA TOMIC | **ARGIZTAPENA ETA ESPAZIO ESZENIKOA** CUBE | **SOINU-ESPAZIOA** ALFONSO FERRI | **PRODUKZIOA** IMMA BOVÉ | **BANAKETA** SOCIETAT DOCTOR ALONSO | **KOPRODUKZIOA** TERRASSAKO FESTIVAL TNT ETA ANTIC TEATREKIN, BÀSCARAKO UDALAREKIN LANKIDETZAN ETA ICEC ETA INAEMEN LAGUNTZAREKIN



KUKAI DANTZA

OSKARA PLAZARA

Oskara Plazara zinema eta dantza lan bat da. Euskal kulturaren pasarteetan barrenako ibilbide bat proposatzen digu: mitoak, tradizioak, sinboloak, abiaburitik eta aro garaikideraino. Oskara Plazara lanean, Kukai Dantzako dantzariak dantzan arituko dira Pablo Iraburu eta Iñaki Alforja nafarrek egindako Oskara dokumentala eman ahala. Dokumental horretan Kukai Dantzak eta Marcos Morauk 2016an sortutako izen bereko dantza lanaren sortze prozesua erregistratu zen.

Kukai Dantza Erreterian kokatutako konpainia bat da. 2001ean sortu zuen Jon Maya dantzari eta koreografoak. Konpainiaren lan ildoak ikuskizun garaikideetan oinarritzen da, euskal dantza tradizioaletik abiatuta, sorkuntza propioak eginez eta koreografo ospetsuekin lankidetzan arituz.

**Maiatzaren 20an,
larunbatarekin, 19etan
ALTSASUKO IORTIA KULTUR GUNEAN**

**Maiatzaren 28an,
igandearekin, 19etan
BARAÑAINGO AUDITORIOAN**

70 min

**ALTSASUKO IORTIA KULTUR GUNEKO
SARRERAREN PREZIOA**

Prezioa, aurrez erosita: 6 eur.

Leihatilan: 8 eur.

**BARAÑAINGO AUDITORIOKO
SARRERAREN PREZIOA**

6 eur.

info +: www.kukai.info

**Maiatzaren 28a, igandea
BARAÑAINGO AUDITORIOA**

Ondoren, hitzaldia Jon Maya Kukai Dantzako zuzendariarekin eta Pablo Iraburu eta Iñaki Alforja Oskara dokumentalaren egileekin

IKUSKIZUNAREN ZUZENDARIA JON MAYA SEIN | **DOKUMENTALAREN ZUZENDARIAK** PABLO IRABURU, IÑAKI ALFORJA
DOKUMENTALAREN PRODUKZIOA ARENA PRODUCCIONES, IÑAKI ALFORJA, ALTU LANAK | **KOREOGRAFIA** MARCOS MORAU (LA VERONAL) | **DANTZARIAK** KUKAI DANTZA | **SORKUNTZA MUSIKALA** XABIER ERKIZI | **ATALDE TEKNIKOA** DAVID BERNUES, ANGEL AGÜERO | **PRODUKZIOKO ARDURADUNA** NAGORE MARTINEZ | **BANAKETA ETA KOMUNIKAZIOA** DOLTZA OAR-ARTETA



EDUARDO FUKUSHIMA (BRASIL)

HOMEM TORTO

Homem torto sortu zen Eduardo Fukushima eta Lin Hwai-min, Cloud Gate Dance Theatre konpainiaren fundatzailea elkartzirenean, 2012-2013ko Rolex Mentor and Protégé Arts Initiative ekimenaren baitan. *Homem torto* dantza asimetrikoko ikuskizun bat da. Gorputz ahul bat erakusten da, gorputz indartsuen energia duena. Sorkuntza hau aurkakotasunean oinarritzen da: gogortasuna-leuntasuna, ahultasuna-indarra, ikus-entzuleekiko hurbiltasuna-urruntasuna, oreka-desoreka, mugimenduaren malgutasuna-bringatzea eta gorputzaren barrena-kanpoaldea. Lan honetan, Fukushimak lagungarri du Tom Monteirok ex profesore sorturiko zuzeneko musika elektronikoa.

Eduardo São Paulon sorturiko koreografo, dantzari eta irakaslea da. Ballet klasikoan, dantza garaikidean eta Japoniako seitai-ho, Txinako txi-kung eta tai-chi tekniken gisakoetan prestatua, Brasilen eta Hego Amerikan zein Europan aurkeztu ditu lanak eta zuzendu egonaldi eta lantegiak.

**Maiatzaren 21ean
igandearekin, 18:00etan
BALUARTEN**

40 min

SARREREN PREZIOA

6 eur.

info +: fukushimaeduardo.wordpress.com

Eskerrak bereziki Rolex Institututeri

Ondoren, solasaldia Eduardo Fukushima eta Cloud Gate Dance Theatre-ekin

ZUZENDARITZA ARTISTIKOA, SORKUNTZA LANA ETA DANTZA EDUARDO FUKUSHIMA | **ORIENTAZIOA** LIN HWAI-MIN
ARGI SORKUNTZA ETA MUNTAKETA ZUZENDARITZA HIDEKI MATSUKA | **ARTISTA KOLABORATZAILEAK** BEATRIZ
SANO, JULIA ROCHA, HIDEKI MATSUKA | **KONPOSIZIO MUSIKALA** TOM MONTEIRO | **ARGIA ETA SOINUA** IGOR SANE |
PRODUKZIOA CAROLINA GOULART | **JANTZIAK** EDUARDO FUKUSHIMA | **ARGAZKIA** INÉS CORREA | **OPERAZIOA ETA**
MUNTAKETA IGOR SANE



KON MOCIÓN

SOBRE RUEDAS

Sobre Ruedas Becky Siegel-ek zuzenduriko Kon moción Taller de Danza-ren eta Espainiako gurpildun aulkiko lehen dantza taldeetakoa den Lua de AMIMET taldearen arteko lankidetzatik sortu zen. Koreografiaren eta inprobisazioaren artean, dantza hau aldi berean da prozesu eta emaitza, dantzariak aske uzten dituelarik deskubritzeko, jolasteko eta arriskuak hartzeko.

Becky Siegel Coloradon (AEB) sortu zen eta prestakuntza New Yorken jaso zuen, besteak beste, Martha Graham eta Merce Cunningham-ekin. Urteetan Richard Bull Dance Theatre inprobisazio taldean aritu zen. 1992z geroztik, Iruñean bizi da, eta bertan Teknika eta Inprobisazio eskolak ematen ditu. 1994az geroztik Tempomobile dantza konpainiako zuzendaria da. 2007an Kon moción Taller de Danza sortu zuen. Konpainia honen xedea mugimendua, inprobisazioa eta arte desberdinen arteko erlazioa ikertzea da.

**Maiatzaren 21ean
igandearekin, 19:00etan
AGOIZKO KULTURA ETXEAN**

**Ekainaren 2an
ostiralarekin, 20:30ean
BARAÑAINGO AUDITORIOAN**

**Ekainaren 3an
larunbatekin, 20:30ean
TUTERAKO GAZTAMBIDE ANTZOKIAN**

60 min

**AGOIZKO KULTURA ETXeko
SARRERAREN PREZIOA**

6 eur.

**BARAÑAINGO AUDITORIOKO
SARRERAREN PREZIOA**

6 eur.

**TUTERAKO GAZTAMBIDE ANTZOKIKO
SARRERAREN PREZIOA**

8 eur.

info +: www.konmocion.org

ZUZENDARITZA ARTISTIKOA BECKY SIEGEL | **DANTZARIAK** TXARO BERZOSA, MARIÉ GONZÁLEZ, FÁTIMA MARQUES, IZASKUN OJER, JAVI OJUEL ETA MONTSE ZABALZA | **MUSIKA:** SLOW TIME PATRICK O'HEARN TIME LAPSE ARVE HENRIKSON SUZANNE LEONARD COHEN (VERSIÓN DE DIANNE REEVES) VIENNE MAGIC MALIK (MALIK MEZZADRI) TIME LAPSE LUDOVICO EINAUDI ROSE LUDOVICO EINAUDI ICY ALTITUDE NILS PETTER MOLVAER FROZEN NILS PETTER MOLVAER | **KON MOCIÓN-EN PRODUKZIOA**, AMIMET-EKIN LANKIDETZAN ETA ZIZUR NAGUSIKO KULTURA PATRONATUAREN BULTZADAREKIN



GILLES JOBIN (SUITZA)

FORÇA FORTE

“Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai”
Laboak zioen bezala, Gilles Jobin koreografo suitzarrak dio gure gorputzak izarren hautsez egina daudela, indar kuantikoen oreka sotil batek elkarturik”

Lanak errealitatearen zenbait geruzekin jolas egiten du eta gorputzaren konexioak espazioaren bidez arakutzen ditu. Pantailan proiektaturiko gorputz birtualak benetakoak bihurtzen dira oholtza gainean Suitzako The Young Gods musika talde mitikoko buru Franz Treichler-en jatorrizko musikak lagundurik.

2013an ikerketa zientifikorako CERN zentro ospetsuarekin lankidetzan hasi zenetik, Gillesek bere Ginebrako estudioa artisten eta zientzialarien topaketarako eta trukerako gune bihurtu du, fisikariekin, astronomoekin eta ingeniari elektronikoekin lan eginez eta zientzia eta dantza fusionatzen duten hainbat lan sortuz, horietako azkena *Força Forte*.

**Maiatzaren 21ean,
igandearekin, 20:00etan
BALUARTEKO GANBERA ARETOAN**

50 min

SARRERAREN PREZIOA

10 eur.

info +: www.gillesjobin.com

Pro-Helvetia-ren laguntza

KOREOGRAFIA GILLES JOBIN | **DANTZA** SUSANA PANADÉS DÍAZ, GILLES JOBIN | **MUSIKA** FRANZ TREICHLER | **ARGIA** GILLES JOBIN, MARIE PREDOUR | **JANTZIAK** JEAN PAUL LESPAGNARD | **GIROTZE BIRTUALA** GILLES JOBIN | **MUGIMENDU HARRAPAKETA** ARTANIM | **ARGAZKIAK** GILLES JOBIN | **PRODUKZIOA** CIE GILLES JOBIN | **ADMINISTRAZIOA** GONZAGUE BOCHUD | **ZUZENDARITZA TEKNIKOA** HUGO CAHN | **KOMUNIKAZIOA** PASCAL VILLA VIEILLE



CLARICE LIMA (BRASIL)

ARBOLAK

Arbolak hausnarketa ariketa bat da, irauteko nahiaren eta denbora-espazioa ekuazio tradizionala alderantzizatzeko gonbidapen bat. Gorputzak noraino eusten dio? Bere lanean, Claricek zuhaitz-gorputz basoak sortzen ditu, hiriaren gunee desberdinetan sustraituak, elementuen ekinari eutsi nahian daudenak. Iruñea zein Atarrabiako karrika, plaza eta lorategietan ezarriko dituen zuhaitzen landaketetarako, brasildar koreografoak dantzarien, yogazaleen eta tokian tokiko interesdunen laguntza izanen du. Hauek guztiek landaketen entsegu egiteko aldez aurreko lantegi batean parte hartuko dute. Bertan, hiriguneetako performanceari buruzko hausnarketa kolektibo bat egingen da.

Clarice Limak, David Zambranorekin batera ikasi zuen eta Jan Fabre, Cristina Duarte edo Constanza Macrasen gisako koreografoekin lan egindakoa da. 2010eko gau bero batean sortu zuen Clarice Lima & gente fina, elegante y sincera dantza ez-konpainia.

Maiatzaren 25ean
ostegunarekin, 19:00etan
IRUÑEAN. GAIARRE
ANTZOKIAREN AURREAN

Maiatzaren 27an
larunbatarekin, Iruñean
GOTORLEKUAN 12:00etan eta
ALDE ZAHARREAN, SAN JOSÉ
PLAZAN 14:00etan

Maiatzaren 28an, igandearekin
ATARRABIAN. SAN ANDRES
ERROTAN 12:00etan eta
13:30etan ANTZO IV JAKITUNA
PLAZAN

25 min

SARRERAREN PREZIOA
Doakoa

info +: www.claricelima.org

Bultzatzaileak: Iruñeko Udala eta Hispano
Brasileña kultura fundazioa



FAUSTIN LINYEKULA (KONGOKO E. D.)

MORE MORE MORE... FUTURE

“Errebeldea izan nahi badut ezin dut No Future esan, hori denek egiten dutena da. Irteera bakarra da eraikitzeaz dagoen etorkizuna desiratzen dela baiestea”. Zein etorkizun dute Kinshasha-n, etengabeko hondamendian dagoen hirian, berehalako pobrezia ahazteko gau bukaerarik gabekoetan elkartzen diren gazteek? Faustin Linyekula dantzari eta koreografoa lehenbizikoz arituko da Espainian oholta ganean, sustraiak rumba, popa eta funka konbinatzen dituen eta Kongoko musikarik ezagunena den Ndombolo estilo hibridoan dituen rock kontzertu bat emanez. Oholtza ganean, hiru dantzari, bost musikari eta Antoine Vumilia Muhindo preso politikoaren poemak, Flamme Kapaya kongotar gitarra jotzaile bikainaren musika zuzendaritzapean.

Faustin, afrikar dantzan onarpen handienetakoa duen artista, Kabako Estudioen fundatzailea da. Estudio hori Kongoko formazio, ikerketa eta trukerako gune bat da, tokiko artistei laguntza ematen diena.

**Maiatzaren 25ean,
ostegunarekin, 20:00etan
GAIARRE ANTZOKIAN**

75 min

SARREREN PREZIOA

Aretoa: 15 eur.


Palkoan: 12 eur.

Anfiteatroan: 8 eur.

info +: www.kabako.org

Bultzatzailea: Institut Français

ZUZENDARI ARTISTIKOA FAUSTIN LINYEKULA | **MUSIKA ZUZENDARIA** FLAMME KAPAYA | **FIGURINGILEA** XULY BÉT | **TESTUAK** ANTOINE VUMILIA MUHINDO | **DANTZARIAK** JEANNOT KUMBONYEKI, PAPY EBOTANI, FAUSTIN LINYEKULA | **MUSIKARIAK** PATOU “TEMPÊTE” KAYEMBE, PÉPÉ LE COQ, PASNAS MAFUTALA, ZING KAPAYA, PATI BASIMA



TXALO TOLOZA Y LAIDA AZKONA

EXTRANOS MARES ARDEN

Extraños Mares Arden eszenako dokumental bat da. Istorio bat kontatzen du: Atacaman, planetako basamorturik elkorrenean, mehategi, eskutik utzitako herri eta mendebaldeko eleberrien artean, arte garaikidearen industria ahalguztidunaren oinarriak ezarri ziren. Ikuskizunean kontatzen da herritarrek, beren lurtean gertatu ziren etengabeko ankerkerietatik bizirik iraun zutela: ihes egin beharrean bertan gelditzea erabaki zuten, eta basamortua beren azken babesleku bihurtzea.

Txalo Toloza-Fernández Bartzelonan bizi den txiletar sortzaile, bideoartista, performer eta erakusketa komisarioa da. 2007tik aitzina Roger Bernaten antzerki konpainiako, FFFko, kide da. Sonia Gómezen ohiko laguntzailea ere bada eta Lagartijas tiradas al Sol antzerki dokumentaleko konpainiarekin lan egin izan du. Laida Azkona nafarra dantzaria eta koreografoa da. Performer gisa hainbat konpainiarekin lankidetzan aritu da, Espainian eta Espainiatik kanpo. Inmediazioak jaialdiaren sortzaileetakoa da.

Maiatzaren 26an
ostiralarekin, 21:00etan
NOAINGO KULTUR GUNEAN

80 min

SARREREN PREZIOA

4 eur.

info +: www.miprimerdop.wordpress.com

PROIEKTU ESZENIKOIA TXALO TOLOZA-FERNÁNDEZ | **ESZENARATZEA ETA DRAMATURGIA** TXALO TOLOZA-FERNÁNDEZ | **KOREOGRAFIA** LAIDA AZKONA GOÑI | **INTERPRETEAK** LAIDA AZKONA GOÑI ETA TXALO TOLOZA-FERNÁNDEZ | **JATORRIZKO SOINU BANDA ETA SOINU ESPAZIOAREN DISEINUA** JUAN CRISTÓBAL SAAVEDRA | **ESPAZIOAREN DISEINUA ETA IKUS-ENTZUNEZKO ERREALIZAZIOA** MIPRIMERDROP | **ARGI DISEINUA** ANA ROVIRA | **IKERKETA PROZESUAREN KOORDINAZIOA** LEONARDO GAMBOA CANEO | **PRODUKZIOAREN DISEINUA** ELCLIMAMOLA | **PROZESUAN BIDELAGUN** SONIA GÓMEZ, MARTA GALÁN, IÑAKI ÁLVAREZ, GABINO RODRÍGUEZ | **TNT-TERRASSA NOVES TENDÈNCIES JAIALDIAREN ETA ANTIC TEATRE-REN ARTEKO KOPRODUKZIOA**



ARTISTAS INFLAMABLES

22H 21M

Obra honek entzumena, elkarrizketan izan beharreko eskuzabaltasuna eta ezezagunak diren bi pertsonen arteko harreman estua lantzen ditu. Topaketa horrek arrotasuneranzko abiapuntua zehazten du, koreografiaturiko mugimendu baten eskutik. *22h 21m* izeneko lan hau gizarte harremanen interpretazioaren eta denboraren nozioaren garrantziaren gaineko hausnarketa bat da.

22h 21m Fernando Carriónen obra bat da, Artistas inflamables konpainiak interpretatua. Dantza eta antzerki fisiko esperimentaleko konpainia hau 2015ean sortu zen eta Miguel Borges (Portugal), Luciana Croatto (Argentina) eta Samuel Retortillo (España) ditu zuzendari. Fernando Carrión Víctor Ullateren konpainian aritu da, Lyongo Ballet de l'Opérarekin eta Madrilgo Dantza Konpainia Nazionalarekin. Gaur egun koreografo eta dantzari free lance gisa ari da eta kolaborazioak egiten ditu hainbat sortzaile eta konpainiarekin, hala nola Artistas Inflamables, Rachid Ouramdane eta Yuval Pick.

Maiatzaren 30ean,
asteartearekin, 12:00etan
BARAÑAINGO AZOKA TXIKIAN
Eultza eta Valentzia
etorbideen artean

15 min

SARREREN PREZIOA

Doan

info +: artistasinflamables.wordpress.com

KOREOGRAFIA FERNANDO CARRIÓN | **KOREOGRAFIA LAGUNTZAILEAK** LUCA VETERE ETA SAMUEL RETORTILLO | **MUSIKA** MACHINEFABRIEK & GARETH DAVIS, DANIEL PEMBERTON, SCHUBERT | **INTERPRETEAK** LEANDRO VILLAVICENCIO, PASCAL BAYARD / LEANDRO VILLAVICENCIO, PASCAL NEYRON

egitaraua lankidetzan





CLOUD GATE DANCE THEATRE (TAIWAN)

RICE

Lin Hwai-min, Taiwango Cloud Gate Dance Theatre konpainiaren sortzailea eta Asiako dantza berritzailearik handienetakoa, dantza garaikidea meditazioarekin, Chi Kung-arekin, arte martzialekin, baletarekin eta kaligrafiarekin uztartzen aritzen da. *Rice* ikuskizunean, Hwai-minek Taiwan ekialdeko Chihshang nekazari herrian izandako paisaia aldaketa islatzen du. Herri horretan, laborariak beren lurrak kutsatu zituzten ongarri kimikoen erabilera intentsiboaren ordeztu, laborantza molde ekologikoak baliatzen hasi ziren.

Sortze prozesuan, koreografoak eta konpainiako 24 dantzariak egonaldi luzeak egin zituzten eskualde horretan, arroza landatzeko moldeak ikasten. Garai hartan, Chang Hao-jan zinegileak denboraren joana erregistratu zuen, paisaian gertatutako eraldaketen bidez. Irudi horiek lana hasi eta buka laguntzen duten elementu bisuala osatzen dute, *videomapping* ikusgarria.

Maiatzaren 20an
larunbatarekin, 20:00etan
BALUARTEN. ARETO NAGUSIAN

70 min

SARREREN PREZIOA

1. eremua: 30 eur.
2. eremua: 24 eur.
3. eremua: 18 eur.

Baluartea Gaztea, 30 urtetik beherakoak, ikuskizuna baino hiru egun lehenago erositako: 9, 7 eta 5 eur.

info +: site.cloudgate.org.tw/eng

Baluartea Fundazioaren
denboraldiko ikuskizuna

Maiatzaren 21a, igandea, 18:30
BALUARTE

Solasaldia Cloud Gate Dance Theatre
eta Eduardo Fukushimarekin

Bira hau gauzatu ahal izan da Kultura
Ministerioaren eta Txinako Errepublikako
(Taiwan) Kanpo Harremanetako
Ministerioaren laguntzari esker

KONTZEPTUA ETA KOREOGRAFIA LIN HWAI-MIN | **ESZENOGRAFIA** LIN KEH-HUA | **ARGIAREN DISEINUA** LULU W.L. LEE. | **BIDEOA** CHANG HAO-JAN (HOWELL) | **PROIEKZIO DISEINUA** ETHAN WANG | **JANTZIAK** ANN YU CHIEN, LI-TING HUANG, SHIH CHIEN UNIVERSITY ERAKUNDEKO MODAREN DISEINUKO DEPARTAMENTUA | **SORKUNTZA LAGUNTZAILEA** LIANG CHUN-MEI



IRON SKULLS

SINESTESIA

Bizirik iraun duten pertsonen multzo batek bidaiatzeari ekiten dio, mundu post-apokaliptikoko gune seguru baterantz. Hip-hop, akrobazia eta dantza garaikidea fusionatzen dira *Sinestesia*n, gizatasuna eta aberetasuna konbinatzen dituen hizkera propio bat sortuz, ikus-entzulea gonbidatuz interferentzia sentsorialen joko batean parte hartzera, pertzepzioko ekintza berean hainbat zentzumenetako zenbait sentsazio motaren arteko interferentzia gisa ulertutako sinestesiaren kontzeptuari erantzunez.

Iron Skulls Crew bboying taldeak sortu zuen Iron Skulls 2013an. Talde hau penintsulako hainbat tokitako eta ibilbide askotariko dantzariak osaturikoa da. Mugimenduaren mugak ikertzera bideratuta dago beren estiloa, eta horretarako arte martzialak, dantza garaikidea, hiri dantzak, produkzio musikala, diseinu grafikoa eta moda uztartzen ditu.

Maiatzaren 27an
larunbatarekin, 19:00etan
NOINGO KULTUR GUNEAN

70 min

SARRERREN PREZIOA

4 eur.

info +: www.ironskulls.com

[Noingo kultur guneko kultura
agendaren ikuskizuna](#)

ZUZENDARITZA ARTISTIKOA, KOREOGRAFIA ETA ARGIZTAPENA IRON SKULLS, CO. | **INTERPRETEAK** ADRIAN VEGA ANTO LÍN, FACUNDO MARTÍN COSTANZO, HÉCTOR PLAZA HERNANDO, DIEGO GARRIDO ABRIL, MOISÉS G. GÓMEZ, LUIS A. MUÑOZ SANTIAGO, BÉNÉDICTE CARRAT | **ARGAZKIA** DAVID B.ROCK



